Idazkaritza

kopia: Alkatetza

TOLOSAKO UDALA

TOLOSAKO UDALA

2018 EKA. 18

SARRERA - ERREGISTROA
ZKA. 5062

**MOZIOA**

**EKAINAREN 28a, GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL, BISEXUAL, INTERSEXUAL ETA QUEER-EN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

1969ko ekainaren 28ko data, Stonewall tabernako gertakariak izan ziren gaua, historikotzat hartzen du lesbiana, gay, transexual, intersexual eta queer-en askapen mugimenduak. Gau hartan, sexu- eta genero-desberdineko jendea isolaturik egoteari utzi eta sistemari aurre egiteko elkartu zen, beren eskaerak agerian jartzeko, ikustarazteko eta diskriminatzen zituen sistema baten bidegabekeriaren aurka borrokatzeko.

Begi-bistakoak dira egun hartatik gaur arte gai horretan izan diren aurrerapenak, bai lege-mailan nola gizartean, hain zuzen ere, funtsezko eskubide zibil batzuk parekaturik, LGTBIQ eta Mugimendu Feminista kolektiboen borrokari esker. Lorpen garrantzitsuak dira, eta posible egin dute onarpen eta irekitasun egotea sexu- eta genero-dibertsitatearen inguruan.

Hala ere, LGTBIQ-fobiak bizirik jarraitzen du: ezarrita dago 70 herrialde baino gehiagotako zigor-kodeetan, zeinek generoko orientazio eta adierazpen desberdinak erreprimitzeko arauak dauzkaten; heriotza-zigorra indarrean dago, oraindik ere, zenbait herrialdetan, eta egoera tragiko horrek eragindako asilo-eskaerak gora doaz, gero eta azkarrago joan ere. Errealitate honen ondorio gisa aipatu beharrekoa da gora egin duela azken urteotan LGTIQ errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen kopuruak eta horrek ekarri du kolektibo honekiko diskriminazioa errefuxiatuen beraien aldetik, eta, gainera, funtzionarioen aldetik ere izan dira diskriminazio kasuak.

Halaber, *Eraberean* sareak egindako txosten batean, ohartarazten digute sexu-aurreiritzi batek oraindik irauten duela, eta horrek eredu

**MOCIÓN**

**EL 28 DE JUNIO DÍA INTERNACIONAL POR LOS DERECHOS DE LESBIANAS, GAYS, TRANSEXUALES, BISEXUALES, INTERSEXUALES Y QUEERS**

El 28 de junio de 1969, fecha de los sucesos de Stonewall, es una fecha histórica para el movimiento de liberación de Lesbianas gays, transexuales, intersexuales y queers. En esa madrugada, personas con sexualidades y géneros diversos, dejaron de permanecer aisladas y se unieron para visibilizarse, hacer públicas sus demandas y luchar contra las injusticias de un sistema que les discriminaba.

Desde esta fecha hasta nuestros días resultan evidentes los avances habidos al respecto, tanto a nivel legislativo como social, en la equiparación de algunos derechos civiles fundamentales gracias a la lucha de los colectivos LGTBIQ y al Movimiento Feminista. Son logros importantes que han posibilitado un mayor reconocimiento y permeabilidad en lo que se refiere a la diversidad sexual y de género.

Sin embargo, la LGTBIQ fobia sigue perdurando: se encuentra instaurada en los códigos penales de más de 70 países, que incluyen normas represoras de las orientaciones y expresiones de género diversas; todavía se contempla la pena de muerte en algunos países y las solicitudes de asilo motivadas por esta trágica situación están creciendo a un ritmo cada vez más rápido. Como consecuencia de esta realidad hay que mencionar el aumento de personas LGTBQ refugiadas y solicitantes de asilo estos últimos años, y con ello, la discriminación hacia este colectivo, tanto desde el propio colectivo de personas refugiadas, así como casos de discriminación desde el funcionariado.

Asimismo, en un informe elaborado por Eraberean, nos advierten sobre la persistencia de un prejuicio sexual que jerarquiza y

heteronormatibotik irteten diren sexualitate zein orientazioak diskriminatu egiten dituela; trans kolektiboaren patologizazioak jarraitu egiten duela; ideologia atzerakoia duten entitateek etengabe erasotzen dietela kolektibo horiei; kolektibo horiek jazarpena jasaten dutela lantokietan; merkataritza- eta asia-lokaletan portaera diskriminatzaileak izaten direla; kolektibo honetako adinekoek diskriminazioak eta bizi-baldintza eskasak jasaten dituztela; ikastetxetan jarrera homofobiko eta lesbofobikoak daudela eta transgenero diren ikasleek jazarpena jasaten dutela. Ikasle horien arazoak areagotu egiten dira pubertaroan, fase horretan gorputza aldatu egiten da, eta orduan genero-identitatea zalantzan jar daiteke; gainera, gizon-emakume binomiokoa izateko agindua zorroztu egin daiteke.

discrimina las sexualidades y orientaciones que difieren del marco heteronormativo; la persistencia de la patologización del colectivo trans; los ataques constantes a estos colectivos de entidades con ideología reaccionaria; el acoso en el trabajo a los que están sometidos estos colectivos; los comportamientos discriminatorios y de rechazo en los locales comerciales y de ocio; las discriminaciones y las precarias condiciones de vida sufridas por las personas de edad avanzada de este colectivo; las actitudes homo y lesbofóbicas en los centros escolares y el acoso sufrido por el alumnado transgénero, cuyos problemas se intensifican en la pubertad, fase definida por un cambio corporal, momento en el que la identificación de género puede entrar en duda y además se puede agudizar el mandato de pertenencia al binomio hombre-mujer.

Arrazoi horiengatik, Tolosako Udalak nahi du LGTBIQ pertsonek jasaten duten diskriminazioa gaitzetsi eta berriz berretsi sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko aurreiritzien aurka duen borrokatzeko konpromisoa.

Por estos motivos, el Ayuntamiento de Tolosa quiere condenar la discriminación que sufren las personas LGTBIQ y ratificar un año más su compromiso de lucha contra los prejuicios y la discriminación por motivo de orientación sexual e identidad de género.

Tolosako Udaleko talde politikoek horrexegatik adosten dute, Osoko Bilkura honetan, udal esparruan osorik garatzea honoko jarduketa hauek:

Es por ello que los grupos municipales del Ayuntamiento de Tolosa acuerdan en este pleno el desarrollo de las siguientes actuaciones en el ámbito municipal:

- Batetik, posizionamendurik irmoena erakustea harako dela beren sexualitateagatik dela beren genero-identitateagatik “normaltzat” jotakotik kanpo dauden pertsona haiekiko aurreiritzi eta erasoen aurka, eta bestetik, aldarrikatzea pertsona guztiek eskubidea dutela sexu- eta maitasun-askatasunerako, beren identitatea definitzeko eta beren harremanak aukeratzeko.

- Mostrar su más firme posicionamiento en contra de los prejuicios y las agresiones contra aquellas personas que bien por su sexualidad o por su identidad de género se salen de los considerado “normal” y proclamar el derecho de todas las personas a la libertad sexual y afectiva, a definir su identidad y elegir sus relaciones.

- Lesbofobia, homofobia, bifobia eta transfobiaren kontrako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, erreferente positiboak sortzeko maitasun- eta sexu-dibertsitatea bizi ahal izateko, herritarren kontzientzia solidario berri baterantz aurrera eginez eta berdintasun eta errespetuko balioetan gizarte-kohesioa segurtatuz, eta

- Promover campañas de información y sensibilización contra la lesbofobia, homofobia, bifobia y transfobia, con el objeto de crear referentes positivos para que se pueda vivir la diversidad afectiva y sexual en plena libertad, avanzando hacia una nueva conciencia ciudadana solidaria y asegurar la cohesión social en los valores de igualdad y

diskriminaziorik ezaren kultura zabaldu kolektibo horiek jasaten dituzten eraso eta aurreiritzien aurrean.

respeto, y extender la cultura de la no discriminación frente a las agresiones y prejuicios que soportan estos colectivos.

- Hezkidetza-proiektuaren bitartez, Tolosako ikastetxeei beharrezko tresnak ematea, diskriminazio hau jasaten egon daitezkeen ikasleak txikitatik laguntzeko. Eta irakasleei laguntzea, maitasun- eta sexu-dibertsitatearekiko errespetuari behar bezala heldu ahal izateko tresnak eta ikasmaterialak emanda.

- Dotar, a través del Proyecto de Coeducación, a los centros escolares de Tolosa de las herramientas necesarias para acompañar y apoyar desde edades tempranas al alumnado que puede estar sufriendo esta discriminación. Así como dotar y apoyar al profesorado de herramientas y materiales educativos para que puedan abordar debidamente el respeto a la diversidad afectivo sexual y de identidad de género.

- Agerian jartzea eta zabaltzea, Erakundeen arteko Jarduerarako eta Koordinaziorako Udal Protokoloaren Mahaiaren bitartez, kolektibo horren gainean espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten diren indarkeria matxistaren era guztiak. Eta orobat, Jarduerarako sexu bereko bikoteen arteko indarkeriatik datozen arazoak agerian jarri eta aztertzeko protokolo bat egitea.

- Visibilizar y ampliar, a través de la Mesa del Protocolo Local de Actuación y Coordinación Interinstitucional, todas las formas de violencia machista en todos los espacios físicos y simbólicos, que se ejerzan sobre este colectivo. Así como, elaborar un Protocolo de Actuación con el objeto de visibilizar y abordar los problema derivados de la violencia entre las parejas del mismo sexo y mejorar la atención.

Era berean, jakinarazten da berriro margotuko dituztela Antonio Lekuona kaleko eskailerak eta, gainera, ekainaren 22tik uztailaren 1era, Zerkausia LGTBIQ banderaren koloreekin argiztatuko dute, alegia, ortzadarraren koloreekin, izan ere, bandera hori erabiltzen da, 1970az geroztik, harrotasun lesbikoaren eta gayaren ikur moduan, kolore horiek LGTBIQ komunitatearen dibertsitatea irudikatzen dute eta.

Asimismo, se informa de que se volverán a pintar las escaleras de la calle Antonio Lekuona y, además, desde el 22 de junio hasta el 1 julio, se encenderán las luces del Zerkausia con los colores de la bandera LGTBIQ o bandera del arco iris, utilizada como símbolo del orgullo lésbico y gay desde 1970, y sus diferentes colores simbolizan la diversidad de la comunidad LGTBIQ.

Bukatzeko, herritarrak gonbidatu nahi ditugu, ikus dezaten Enfemme dokumentala, Alba Barbek zuzendua, ekainaren 27an, asteazkena, 19:00etan, TOPICen.

Para acabar, queremos invitar a la ciudadanía a que acuda a la proyección del documental EnFemme, dirigida por Alba Barbé, el 27 de junio, miércoles, a las 19:00, en el TOPIC.

Tolosan, 2018ko maiatzaren 31n

EAJ-PNV

PSE

EHBILDU